

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### PARTAIDETZA ETA GIZARTE ETXEEN SAILA

##### Partaidetza eta Gizarte Etxeak

#### **Alkatetzaren dekretua, Vitoria-Gasteizko Udalean 2019. urtean herritar-konsulten prozesua abian jartzeko**

Gobernu-taldeak Udala herritar-konsulten araudi organiko batez hornitzeko prozesuari ekin zion, hiriko gai estrategikoen gainean gasteiztarrei galdetu eta entzuteko prozedurak egituratzeko tresna izan dadin. Proposamen hori konpromiso bat zen, eta hala azaldu zen udal politikaren inguruko azken debate orokorrean:

“Udalaren kudeaketak ehuneko ehun gardena izan behar du, eta herritarren partaidetza erabili kontrol organo gisa, gardentasunaren adierazle egiazko eta bakartzat. Alkate batek herritarrentzat gobernatu behar du eta, batez ere, herritarrekin batera. Herritarren partaidetzaren alde egiten da, udal kudeaketa kontrolatzeko tresna izateaz gain, hemen bizi garen pertsona guztion artean politikak eta hiria eraikitzeko formula egokia baita. Herritarren partaidetzarako eredu berria protagonista izango direnen ekarpenez diseinatu behar da. Pertsonak izan behar dute hiri-eredu berriaren zutabea”.

Legez ezarritako prozedura bete ondoren, 2016ko urriaren 4an jarri zen indarrean Herritar-konsulten Araudi Organikoa, zeinak 42 artikulua baititu.

Hain zuzen ere, 9. artikulua xedatzen duenez, alkateak urtero finkatu beharko ditu hurrengo urteko herritar-konsultak egingo diren datak, araudian ezartzen diren epeak aintzat harturik.

Horrenbestez, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak —Tokiko Gobernu eraberritzeko neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legean emandako idazketan— 124.4. artikulua g) eta ñ) letretan ezarritakoaren ildotik, eta Herritar-konsulten Araudi Organikoan jasotakoarekin bat etorritik, hau

Xedatu dut

1. Azaroaren 24a (igandea) finkatzea 2019ko herritar-konsulta egiteko datatzat.
2. Konsulten organo instrukzio-egilea denez, Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuari eskatzea sostengua eta aholkularitza herritar-konsultaren prozesua garatzeko.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko abenduaren 11n

*Vitoria-Gasteizko alkatea*  
**GORKA URTARAN AGIRRE**